



## Nafarroako hiri hondakinei buruzko erakusketa ibiltaria “Helburua: birziklatzea”



Datorren irailaren 22tik urriaren 10era arte, Bortzirietako Mankomunitateko biztanleek ikusi ahal izanen dute Bortzirietako herrietan **Nafarroako Hiri Hondakinei Buruzko Erakusketa Ibiltaria: “Helburua: Birziklatzea”**.

Erakusketaren egutegia honako hau izanen da

Data	Herria	Tokia	Orduetgia
Irailaren 22tik 24ra	Etxalar	Kultur Etxea	16:00-19:30
Irailaren 25 eta 26a	Igantzi	Herriko Eskolak	Eskolako orduak
Irailaren 29 eta 30a	Arantza	Herriko Eskolak	Eskolako orduak
Urriaren 1etik 6 ra	Lesaka	Beti-gazte	18:00-20:00h
Urriaren 7tik 10era	Bera	Kultur Etxea	9:00-15:00 eta 17:00-19:00

**Nafarroako Gobernuak eta Ecoembesek** bultzatutako erakusketa hau 2004an sinatutako laguntza akordioaren esparruan kokatu behar da. Gauzatzea **Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroaren** bitartez izan da **Nafarroako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Mankomunitateen** laguntzarekin.

**Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroak** koordinatzen eta kudeatzen du 200x85 zmko 17 taula-zabalgarriez osatutako erakusketa hau.

2008. urtean zehar erakuskea hau ikusgai egonen da hondakinak kudeatzen dituzten Nafarroako Mankomunitate eta udaletan.

Erakusketaren helburuak bi dira: Biztanleen ezagutza eta sentsibilizazioa indartzea Mankomunitate bakoitzean hondakinak jasotzeko dauden sistemen inguruan, eta biztanleen laguntza ezinbestekoa dela ongi funtzionatzeko azpimarratzea. Horretarako erakusketak hiru atal nagusi ditu:

1. **Hondakinak, arazoak eta konponbideak.** Ikuspuntu orokorra eskaintzen du hiri hondakinen egungo egoeraren inguruan eta baita horien kudeaketak eta pilaketak sortzen dituzten arazoen inguruan ere.
2. **Hiri Hondakinak Nafarroan.** Atal honetan Nafarroan eta Bortziritako Mankomunitatean hiri hondakinak nola kudeatzen diren deskribatzen da eta 2005ean zenbat bildu eta berreskuratu den adierazten da.

Erakusketaren tauletan agertzen den bezala, 2005eko datuen arabera, Bortziritako biztanle bakoitzak **664 kilo zabor sortzen ditu urtean**, hau da, **1,82 kilo eguneko**.

Gaur egun, Bortziritako Mankomunitateak garatutako bilketa selektiboan badira: edukiontzi berdeak, gai organikoa jasotzeko; edukiontzi horiak, puntu berdea duten plastikozko eta metalezko enbaseak eta brikak jasotzeko; edukiontzi urdinak, puntu berdea duten enbaseak, papera, kartoia, egunkariak eta aldizkariak jasotzeko; eta iglu berdeak, beirazko botilak, flaskoak eta poteak jasotzeko.

Sistema horri esker, 2005ean, Bortziritako Mankomunitateak 4.586 tona zabor jaso zituen eta 65 tona enbase, 296 tona beira eta paperaren %39 berreskuratu.

3. **Hondakinen arazoen inguruko jardunbide egokiak.** Atal honetan agertzen dira entitate ezberdinen esperientzi garrantzitsuenak eta biztanleendako aholku praktikoak, hondakinek sortutako arazoak murrizten laguntzeko.

**Informazio gehiagorako:**



**Bortziritako HHSak  
Kudeatzeko  
Mankomunitatea**

**Kontaktua: Ramoni Olatziregi. Tfno: 948635254**